

FUTBOLA

Futbolearen oinarrikoak diren arloak sakondu nahi ditu Saezek

Larrazabal, Tabuenka eta Garitano ez ziren entrenamenduan aritu

Castelloneko partidua galdu ondoren, Athleticen entrenatzailea izateari ekin dion Iñaki Saez, datorren igandean San Mamesen Sevillaren aurka jokatu behar duten partidua sakonki prestatzen ari da. Atzo izandako entrenamenduan, liga amaitu aurretik geratzen diren hamabi partiduetan ezarriko duen joku sistema erabili zuen.

RAMON BASALDUA / BILBO



Iñaki Saez gogoz ari da prestatzen igandeko partidu berezia.

KEPA

Lan gogorra betetzen ari dira zurigorriak, Saezek taldeko erantzun-kizuna hartu duenetik. Atzokoan ere, goizez eta arratsaldean aritu ziren bilbotarrak San Mamesen, futbolearen oinarrikoak diren arlo batzuk sakondu asmoz. Goizeko entrenamenduan lehen taldeko jokalariek batzuk ez ziren aritu. Aitor Larrazabal ez da taldearekin aste batzuetan ibiliko Varizelaz gaixorik dago eta Luis Fernandok ariketa fisikoak egin ondoren ez zuen beranduago jokatutako partidotxoan parte hartu, orkatila mindurik bait dauka. Oscar Tabuenari oraindik ez zaio lesioa sendatu eta Ander Garitanok atsedena hartu zuen atzokoan, Iñaki Saezek Sevillaren kontrako partidurako jokatze prest eduki nahi duelako.

Athleticeko entrenatzaile berria, asteazken arratsaldean bere taldeko jokalariekin mintzatu zen. «Jokalariekin mintzatu naiz, nik bete nahi dudana sistema uler dezaten. Gizon bakoitza, sistemaren arabera jarri dut eta pixkanaka, pixkanaka, taldearen akatsak konpontzen saiatu behar gara.» adierazi zuen Saezek. Clemmentek denboraldi guztian erabilitako

sistema eta Saez erabiliko duenaren artean ez dago desberdintasun handirik. Saezek Bilbao Athleticen erabili ohi duen joku sistema berbera ezarriko du Athleticen, hau da: 5-3-2. Sevillaren aurka zelairatuko duen hamaikoa asmatzea ez da lan erraza baina gauza bat argi dago: ez da sorpresa handirik egongo. Dena den, hauek izan daitezke datorren igandean San Mameseko partidurako Saezek aukeratutako gizonak. Kike, Salinas, Alkorta, Andrinua, Eskurza, Garitano, Ripodas, Urrutia, Billabona, Loren eta Valverde.

Aste honetan izandako entrenamenduetan, futbolearen oinarrikoak diren arloak sakondu nahi ditu Iñaki Saezek «Korner jaurtiketak gola sartzeko aukera ezin hobea dira eta ondo prestatu behar dira.

Alboko sakeak ere kontutan hartzeak dira, izan ere, ezin bait da inondik eta inora onartu, alboko sake baten ondorioz gol bat hartzea, Athleticari Vicente Calderonen gertatu zitzaion bezala. Futbol zelaira atera orduko ideiak argi eduki behar ditu jokalariek» adierazi zuen atzo Saezek.

Lunbrerasesk Richardsonen ordezkariak izan dezake igandean

DONOSTIA

Txema Lunbreras nafarrak hasierako hamaikakoan jokatze aukera berria eduki dezake igandean Realak Valenciaren aurka jokatuko duen partiduan. Britaniarra ez da guztiz sendatu eta igandeko zalantza da.

Donostiarrak gaur entrenatuko dute Zubietan eta bihar goizean abiatuko dira Valencia aldera. Javier Expositoren jokalariek momentu honetan duten negatiboa utzi nahi dute Luis Casanova futbol zelaiari.

Frank, Murillo, Sarasola eta Dani Martinez aritu bait ziren. Promesasekoak, inoiz baino 'egiazkoak'.

Iñaki Berastegi arbizuarra Iruñean dabil egunotan, pneumoniaz bait dago Lleidako jokalaria, eta hilabete jokatuz gabe egon beharko du. Hain zuzen ere, nahiko sorte txarra izan du utzita dagoen jokalariek ere, denboraldi osoan zehar izan dituen minei erreparatu badiogu, behintzat. Eta patu txarrak jota edo, Unzue eta Arozarena nafarrak ere lesionatuta dabilte egunotan, Sevillako atezaina belaunean, operatu egin bait zuten, eta Castellongo aurrelaria hepatitisarekin bait dago.

Bestalde, laister hasiko dira taldea eta T. Larrainzarren arteko elkarrizketak, bere kontratua berritzeko.



Gullit eta bere taldekideek ezin izan zuten Marseillaren kontra irabazi.

Milanek ez du inpugnatuko Marseillaren aurkako partidua

BERNA

Milan talde italiarrak ez du Marseillaren aurkako partidua inpugnatuko Europako Futbol Elkartearen Batasunak (UEFA) atzo adierazi zuenez. Asteazkenean Marseillan jokatu zen partidua legezko denbora amaitu baino bi minutu lehenago bukatutzat eman zuen epaileak. Partidu ostean Milan taldeko zuzendariak UEFARI partidua balio gabe uztea eskatuko ziotela azaldu zuten.

Atzo igorritako agirian azaltzen zuten ordea, 1-0ko emaitza onartzen dute. Emaitza honek azken bi

urteetan Europako Kopa eskuratu duen taldearen kanporaketa suposatzen du. UEFAk berriz hilaren hogeitazazpian hartuko du gai honen inguruan erabakia. Europako elkarrean bi zigor mota aztertuko ditu. Batetik Milan taldeari dagokiona, partidua bukatze falta ziren bi minutuak jokatzeari uko egin bait zioten italiarrek. Bestetik Marseilla taldeak zigor ekonomikoa jasan dezake, partidua bukatu bezain pronto ikusleek zelaia hartu bait zuten.

UEFAko zuzendariak partiduko epailea izan zen Bo Karlssonen suediarren informeen zai daude.

Zubillaga: «Jasandako lesioak aberasgarriak izan zaizkit»

BARCELONA

Javier Zubillaga Español taldeko erdilaria —sei urtean Donostiako Realeko jokalaria izandakoa— futbolaria denetik seigarren ebakuntza «serioa» jasan eta osatzen ari da, eta lesio hauek maila pertsonal eta profesionalean gogortu egun dutela adierazi du, eta horregatik futbolari eskerra zor diola.

La Riojako jokalariek eskuineko hanka igeltzatua du, orain hiru aste egindako lesioagatik. Espainiako Ligan lesio larri gehien jasan dituen gizona izango da Zubillaga, baina «bizitzaren alderik onena datorrena datorrela aurre egin eta ahal den moduan gaintzea» dela adierazi du. Ebakuntza behar izan duten sei lesio larriez gain, hainbat aldiz egon da La Riojakoak minduta, eta partidu ugari galdu ditu arrazoi honengatik. Oraingoan, hilabete inguru eman beharko du Zubillagak osatzen.

Igeltzoarekin deseroso dagoela onartzen du, «baina denboraldia amaitu aurretik partidu bat edo bi jokatze aukera izango dudala espero dut», adierazi berri du. 31 urteko jokalariek aspalditik iragarria du denboraldia amaitzean futbola utziko duela, eta ia etenik gabe ebakuntzak jasan behar izan dituen arren, ez da kexu. «Uste baino astiroago joan den osaketaren ondotik

berriz zelairatzea bezalakorik ez dago, zeuri bizitza osoko partidurik onena iruditzen zaizuna jokatzeo».

OSATZEA
LORTU
BETI

Lesio piloa jasan arren, Realeko jokalaria ohiak ez du uste zorigaitzokoa izan denik, «beti osatzea lortu bait dut. Beste batzuk aldiz, zoritxarrez, lesio bakarragatik futbola alde batera utzi behar izan dute betirako». Ekainaren 30ean futbola uzteko erabaki tinkoa hartua duela dirudi. «Iaztik buruan darabilkidan kontua da, eta betetzea erabaki dut. Erabaki pertsonala eta familiarra da, eta beharrezko ikusten dut. Gainera, ni ez naiz futbolari agortu arte zuku ateratzearen aldeko».

Donostiako Realean 81-82 denboraldian estreinatu zen Zubillaga, eta 86-87ra arte 117 partidu jokatuz txuri-urdinekin. 87-88an Barcelonako Españolekin fitxatu, eta lau denboralditan 111 partidutan zelairatu da «perikitoekin». Hamar urteko karreran 228 partidu jokatuz dituen errioxarrak Liga, Kopa eta Superkopa irabazi ditu, Realarekin. Españolekin bigarren mailara ere jaitsi da, berriz igoteko. Une latzak iragan dituzte kataluniarrek, baina «guzti hori gaintu dugu —dio Zubillagak—, eta nire erretiroarekin batera Españolentzat garai hobek iritsiko direla espero dut».

Sola berriro ere dudakoa igandeko partidurako

A.B. / IRUÑEA

Sola da, berriro ere, Osasunako albiste, eta ez guztiak poztekoa, txantrearrak jadanik bi aste eman bait du lesionatuta, gripea dela eta. Atzo ere, eta beste egunetan baino hobeki bazegoen ere, ezin izan zuen entrenamendua behar bezala egin. Erdilariak gogoratuko du, zalantzarik gabe, denboraldi hau, minek ez bait diote ohizko erregulartasunez jokatzen utzi. Zabalzak ere ez zuen oso garbi ikusten bere egoera, eta hobera egingo duelakoan bazegoen ere, oso zaila izango du igandean jokatzea. Bestalde, aipatzeak da asteazkenean Promesaseko jokalariek lehenengo ekipoarekin egin zuten entrenamendua, bertan Toledo,